



BBUP-EN IGOGAILUEN MANTENTZE ZERBITZUA

3. dokumentua Preskripzio Tekniko Partikularren Agiria

1. XEDEA

Preskripzio Tekniko Partikularren Agiri (PTPA) honen xedea da BBUP-EN IGOGAILUEN MANTENTZE-LANEN ZERBITZUA egin bitartean gida gisa erabiliko diren baldintza teknikoak zehaztea, baita lizitatzailleek eskaintza teknikoetan aurkeztu behar duten dokumentazioa zehaztea ere.

2. DESKRIBAPEN OROKORRA

BBUPen zenbait instalaziotan gailu jasotzaileak daude, zeinek funtzionamendua bermatzeko mantentzeaz gain, lege-mantentzea ere behar baitute, administrazio eskudunak baimena emandako enpresek erabat edo zati batean egin beharrekoa.

Mantentze-lanak egin beharreko instalazioek araudi hau bete behar dute gutxienez:

- 5/2014 Dekretua, urtarrilaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan igogailuak mantendu eta aldizka ikuskatzeko prozedura ezartzeko dena.
- 355/2024 Errege Dekretua, apirilaren 2koa, AEM 1 «Igogailuak» ITO instrukzio tekniko osagarria onartzen duena, zeinak arautzen baitu igogailuak martxan jartzea, aldatzea, mantentzea eta ikuskatzea, bai eta lehendik dagoen igogailu-parkearen segurtasuna handitzea ere.
- Igogailuaren dokumentazioak 355/2024 Errege Dekretuan (AEM 1 ITO) ezarritakoa bete beharko du.
- 81/2020 Dekretua, ekainaren 30ekoa, industria-segurtasunarena (EHAA, 2020ko uztailaren 14koa), goragailuei aplikagarri zaien guztian.

3. ZERBITZUAREN IRISMENA

3.1 MANTENTZE-LANAK IZAN BEHARREKO ELEMENTUAK

Kontratatu nahi den zerbitzuaren bidez mantentze-lanak izan beharreko elementuan jarraian daude zehaztuak:

ZK.	Kod. Aktiboa	Kokalekua	Eraikina	Udalerria	Goragailuaren Erreg. Zk.	Klasea	Marka	Edukiera (pertsonak)	Ibiltartea (m)	Geldialdiak
1	AVAT06080ASC01AS01	BETELURIKO EUT	KONTROLA	ARRIGORRIAGA	29888	ELEKTRIKOA	ORONA	6	4	2
2	AVAT06080ASC02AS01	BETELURIKO EUT	1. FASEA	ARRIGORRIAGA	5878	ELEKTRIKOA	SCHINDLER	10	9,8	3.
3.	AVAT06080ASC03AS01	BETELURIKO EUT	2. FASEA	ARRIGORRIAGA	12362	ELEKTRIKOA	SCHINDLER	7	17,2	4
4	AVAT06080ASC04AS01	BETELURIKO EUT	ERREAKTIBOAK	ARRIGORRIAGA	27669	ELEKTRIKOA	IMEM	4	13	2
5	AVAT06080ASC02AS02	BETELURIKO EUT	1. FASEA - JANTOKIA	ARRIGORRIAGA	29282	ELEKTRIKOA	OTIS	3	2,93	2
6	AVAT06080ASC03AS03	BETELURIKO EUT	2. FASEA - OZONOA	ARRIGORRIAGA	34348	ELEKTRIKOA	SCHINDLER	21	3,5	2
7	AVAC02020EDI01AS01	ETXEBARRIKO PONPAKETA	PONPAKETA	ETXEBARRI	31571	ELEKTRIKOA	OTIS	8	16,2	3
8	SGLR01030SIF01AS01	UNIBERTSITATEKO SIFOIA	MUSEOKO ALDEA	BILBO	16889	ELEKTRIKOA	THYSSEN	5	30,2	7
9	SGLR01030SIF01AS02	UNIBERTSITATEKO SIFOIA	UNIBERTSITATEKO ALDEA	BILBO	16890	ELEKTRIKOA	THYSSEN	5	33,8	7
10	SGLT10001ASC01AS01	GALINDOKO HUA	PONPAKETA NAGUSIA	SESTAO	14034	ELEKTRIKOA	THYSSEN	4	23,6	3
11	SGLT10001ASC02AS01	GALINDOKO HUA	BIOLOGIKOA	SESTAO	19757	HIDRAULIKOA	THYSSEN	51	11,3	3
12	SGLT10001ASC04AS01	GALINDOKO HUA	IPARREKO INDUSTRIALA	SESTAO	27419	ELEKTRIKOA	IMEM	8	8,8	4
13	SGLT10001ASC04AS02	GALINDOKO HUA	IPARREKO INDUSTRIALA	SESTAO	26374	ELEKTRIKOA	IMEM	17	6	3.
14	SGLT10001ASC04AS03	GALINDOKO HUA	INDUSTRIALA, LABEAK	SESTAO	25446	ELEKTRIKOA	IMEM	8	4,5	2
15	SGLT10001ASC06AS01	GALINDOKO HUA	KONTROLA	SESTAO	14219	ELEKTRIKOA	THYSSEN	4	7,58	3.
16	SGLT10001ASC07AS01	GALINDOKO HUA	3. LABEA	SESTAO	30042	ELEKTRIKOA	ZARDOYA OTIS	8	11,65	4



17	SLAR01020BBO01AS01	UR-ERAMATEKO PONPAKETA	PONPAKETA	ERANDIO	21491	ELEKTRIKOA	MACPUARSA	4	19,2	4
18	SLAR02010BBO01AS01	LAMIAKOKO PONPAKETA	PONPAKETA	LEIOA	17451	ELEKTRIKOA	SCHINDLER	6	22,6	4
19	SLNT06030EDI01AS01	LAMIARANGO HUA	KONTROLA	BERMEO	30122	ELEKTRIKOA	ORONA	8	8	3
20	SGLT10001ASC08AS01	GALINDOKO HUA	ZERBITZUAK	SESTAO	31855	ELEKTRIKOA	ORONA	11	3,43	2
21	SGLT10001ASC04AS04	GALINDOKO HUA	INDUSTRIALA	SESTAO	33567	ELEKTRIKOA	ITZA	21	5,1	2
22	SGLT10001ASC05AS01	GALINDOKO HUA	ERRAUTSEN SILOAK	SESTAO	-	KARGA-JASOGAILU ELEKTRIKOA	ALHER	-	27	3.
23	SGLT10001ASC03AS01	GALINDOKO HUA	PRENTSA-IRAGAZKIAK	SESTAO	-	KARGA-JASOGAILU HIDRAULIKOA	HIDRAL	-	8	2
24	AVAT06080EDI02AS03	BETELURIKO EUT	1. FASEA - PREBENTZIOA	ARRIGORIAGA	-	PLATAFORMA ELEKTRIKOA	OTIS	-	2,8	2

3.2 EGIN BEHARREKO LANAK

Egin beharreko lanek barne hartuko dituzte, gutxienez, ondoren zerrendatu eta zehaztutako apartatuak.

- Mantentze-lanak
- Beste lan batzuk
- Alarmak komunikatzeko sistemak egokitzea
- Dokumentazioa

3.2.1 MANTENTZE-LANAK

Mantentze-lanen barruan sartuko dira kontratuaren xede diren elementuen bizi-zikloan, haiek kontserbatzeko edo eskatutako funtzioa bete ahal izateko egoerara itzultzeko behar diren jarduera tekniko, administratibo eta kudeaketako guztiak.

Mantentze-lanak, gutxienez, honako hauek izango dira:

- Legezko mantentze-lanak – Aldizkako ikuskapenetan laguntzea
- Prebentziozko mantentzea
- Mantentze zuzentzailea

3.2.1.1 LEGEZKO MANTENTZE-LANAK – ALDIZKAKO IKUSKAPENETAN LAGUNTZEA

Aldizkako ikuskapenetan lagunduko da kontratuaren xede diren instalazioetarako aplikagarri den indarreko araudian eskatutakoari jarraikiz.

Kontrol Erakunde Egiaztatuak (KEE) egingo ditu aldizkako ikuskapenak.

BBUPek KEE baten zerbitzuak kontratatuko ditu, eta adjudikaziodunari jakinaraziko zaio; hala, azken horrek koordinatuko du legezko ikuskapenak egitea, programatuta dauden mantentze-lanekin, instalazioak ahalik eta erabilgarrien daudela bermatzeko. Arduratuko da, halaber, lagun egiteaz, ekipoak muntatu eta desmuntatzeaz eta KEEk ikuskapenak egiteko behar dituen eragiketa guztiez.

Legezko mantentze-lanek – aldizkako ikuskapenetan laguntzeak sortutako gastu guztiak (KEEren zerbitzuak izan ezik), hala nola lagun egitea ekipoak muntatu eta desmuntatzea eta KEEk ikuskapenak egiteko behar dituen eragiketa guztiak ez dira bereiz fakturatuko, mantentze-lanen prezioen barruan baitaude.

3.2.1.2 PREBENTZIOZKO MANTENTZE-LANAK

Aurrez zehaztutako tarteetan edo agindutako irizpideen arabera egingo dira. Helburutzat dute huts egiteko probabilitatea eta jardunaren ondoriozko narriatzea murriztea. Irizpide hoberik ezean, fabrikatzaileak zehaztutako arauak eta zehaztapen teknikoak beteko dituzte.

Enpresa adjudikaziodunak prebentziozko mantentze-lanen gamak egin eta beteko ditu (Kontratuaren zuzendariak onetsi ostean), kontuan hartuta kontratuaren xede diren instalazioetarako duen esperientzia.

Prebentziozko mantentze-lan guztiak planifikatzeko orduan, minimizatu egingo da BBUPen instalazioak erabilgarri ez dauden denbora.



Era berean, atal horren barruan sartuko dira prebentziozko mantentze-lanetan ikusten diren «akats txikiak» eta «matxura txikiak» zuzentzea.

«Akats txikiak» eta «matxura txikiak»: konpontzeko, langile baten 16 ordu behar dituztenak eta/edo gehienez 250,00 euroren ordezeko piezak behar dituztenak.

Prebentziozko mantentze-lanetan sartuko da higitzen diren piezak konpontzea edo ordeztea, hala nola ondorengo zerrendakoak, zerrenda zehatza izan gabe:

- Maniobra-koadroen elementuak:
 - Bobinak, zirkuitu inprimatuko plakak, abiadura erregulatzeko elementuak, maiztasuna edo tentsioa aldatuz, eta enkoderrak.
 - Erreleak, errele tenporizadoreak, kondentsadoreak, kontaktoreak, termikoak, transformadoreak, maniobra-koadroko etengailuak, baristoreak, fusibleak eta fusible-euskarriak, artezgailuak, erresistentziak, diodoak eta pilak.
- Trakzio-sistemaren elementuak, makina-gela eta poleak.
 - Trakzio- eta desbideratze-poleak, ardatz amaigabea, ixte-eraztunak, kojinetek eta errodamenduak, motorra eta motorreko elementuak, harikaltuak, zorroak eta kojinetek.
 - Balazta-bobina, balazta-zapatak, gomazko gurpilak eta balaztatzeko elementuak.
- Instalazio oleodinamikoetan:
 - Pistoia, elektrobulbulak, banaketa-mansura eta zirkuitu oleodinamikoak.
 - Monometroa, presostatoa, elektrobulbulen bonina, eta ixte-balbulen taldean, malgukia eta juntura torikoak.
- Ate eta kabinako elementuak:
 - Ateen ixte automatikoak, motelgailuak, morroiloak eta erretraktila.
 - Igogailuaren berezko noranzko biko komunikazio-sistemaren elementuak, linea telefonikoa salbu.
 - Transformadoreak, fotozelula-lanpara, alarmaren, txirrinaren edo sirenaren elementuak, ate-ixteen segurtasun-kontaktuak, banda-buloiak, mikroetengailuak, gomazko topeak, gurpilak eta poleatxoak, ate-labangailuak, sakagailuak eta argidunak.
- Kabina-txasisaren elementuak eta kontrapisuak, zuloak, hobia eta bestelakoak:
 - Makina-koadroaren instalazio elektrikoa, kabinarena eta kable anizkunak, seinaleztatzeko elementuak, sakagailuak eta pilotuak.
 - Zulo eta kabinako maniobra kontrolatzeko elementuak, gelditze-kontagailua, geldialdi magnetikoak eta mikroetengailua eta pantailak.
 - Abiadura-mugagailua, polea tenkatzailea, zorroak, mugagailuaren kontaktu elektrikoa, ardatzak eta errodamenduak.
 - Kabinaren kontrolik gabeko mugimendu eta ziriztatze-kontakturako segurtasun-sistema.
 - Kabina-txasis eta kontrapisuko elementuak, lerragailuak, birakariak eta gainkarga-gailua, trakzio-kableak, kableak lotzekoak, kateak eta konpentsazio-kableak eta abiadura mugatzeko kablea.
 - Kabina eta kontrapisuko lerragailuak eta lerragailu-euskarriak, gantzak eta lubrifikazio-olioa.

Prebentziozko mantentzeko gametan xehe-xehe deskribatuko dira zer mantentze-eragiketa exekutatu diren, bai eta zer maiztasunez egingo diren ere. Horrez gain, gutxienez, honako eragiketa hauek hartuko dituzte barne:

Tauletan egiteko maiztasunari buruzko termino hauek laburbiltzen dira:

e=egunero, a=astero, H=Hilero, HH=Hiru hilero, S=Sei hilero eta U=Urtero.



3.2.1.2.1 IGOGAILU ELEKTRIKOEN PREBENTZIOZKO MANTENTZE-LANAK

Eragiketa	Deskribapena	e	a	H	HH	S	U
PR1-001	Sarbideen eremuan sakagailuak eta seinaleak egiaztatzea			X			
PR1-002	Sarbideen eremuko bandak eta kristalak egiaztatzea			X			
PR1-003	Sarbideen eremuko ate guztien funtzionamendua egiaztatzea			X			
PR1-004	Sarbideen eremuko heldulekuen eta hesitxoaren euspena egiaztatzea			X			
PR1-005	Egiaztatzea modu onargarrian funtzionatzen dutela sarbideen eremuko sarrailek, seguruek eta katigamenduek, eta ziurtatzea ate-seriek behar bezala funtzionatzen dutela			X			
PR1-006	Sarbideen eremuko gelditze-mailen funtzionamendu onargarria egiaztatzea			X			
PR1-007	Makina-gelaren sarbidea ikuskatzea			X			
PR1-008	Makina-gelaren atea ikuskatzea			X			
PR1-009	Makina-gelako konexio-kaxa ikuskatzea			X			
PR1-010	Makina-gelako ateko sarrailaren funtzionamendua egiaztatzea			X			
PR1-011	Makina-gelako motor erreduktorean ihesak/olio-maila egiaztatzea			X			
PR1-012	Makina-gelan balaztaren funtzionamendua egiaztatzea			X			
PR1-013	Makina-gelan bankadarako euspenaren funtzionamendua egiaztatzea			X			
PR1-014	Makina-gelaren garbitasuna egiaztatzea			X			
PR1-015	Makina-gelan argien funtzionamendua egiaztatzea			X			
PR1-016	Makina-gelan babes elektrikoaren funtzionamendua egiaztatzea			X			
PR1-017	Egiaztatzea makina-gelan ez daudela igogailuaren erabilerakoak ez diren instalazioak eta kanalizazioak			X			
PR1-018	Makina-gelan motor-erreduktore-poleetan tarteak ez daudela egiaztatzea			X			
PR1-019	Makina-gelan ohararazpen-plaka eta larrialdietako jarraibide guztiak jarrita daudela egiaztatzea			X			
PR1-020	Makina-gela garbi eta elementu arrotzik gabe dagoela egiaztatzea			X			
PR1-021	Pertsonak erreskatatzeko funtzionamendua egiaztatzea			X			
PR1-022	Makina-gelan egiaztatzea maniobraren, etengailu orokorraren, magneto termikoen, diferentzialen funtzionamendua, eta kableen eta terminal elektrikoaren egoera			X			
PR1-023	Motorraren funtzionamendua egiaztatzea			X			
PR1-024	Kabinan egiaztatzea ez dagoela sakagailu puskaturik edo askerik, botoiak ondo finkatuak daudela eta solairuak behar bezala zenbakituak			X			
PR1-025	Kabinan pitzadurak, hausturak eta deformazioak dauden egiaztatzea			X			
PR1-026	Kabinan bonbilla eta fluoreszente erroerik ez dagoela egiaztatzea			X			
PR1-027	Kabinako atek behar bezala finkatuta daudela eta ez dutela elkar urratzen egiaztatzea			X			
PR1-028	Kabinako fotozelularen edo argi-gortinaren funtzionamendua egiaztatzea			X			
PR1-029	Larrialdi- eta alarma-argien funtzionamendua egiaztatzea kabinako elikadura elektrikoaren kenduz			X			
PR1-030	Kabinako karga-neurketaren funtzionamendua egiaztatzea			X			
PR1-031	Kabinako ateko operadorearen egoera eta lerrokatzea egiaztatzea			X			
PR1-032	Kabinako loturak egiaztatzea			X			
PR1-033	Kabina garbi eta elementu arrotzik gabe edukitzea			X			
PR1-034	Kabinako interkomunikazio-sistemaren / telezerbitzuaren funtzionamendu onargarria egiaztatzea			X			
PR1-035	Balazta-palankaren eta erreskate-sistemaren funtzionamendu onargarria egiaztatzea			X			
PR1-036	Balazten egoera egiaztatzea: zapaten lodiera, eragiteko mekanismoa, koipeztatzea			X			
PR1-037	Baleztatzean lerradura anormalik ez dagoela egiaztatzea			X			
PR1-038	Egiaztatzea baleztatzean kable bakar batek ez duela polearen gainean labain egiten			X			
PR1-039	Poleako arteka ez dagoela mailatua edo koskatua			X			
PR1-040	Egiaztatzea, ibiltarte osoa eginda, ez dagoela kalterik ez trakzio-poleako kableetan, ezta mugagailukoetan ere			X			
PR1-041	Poleen zigilua dagoela egiaztatzea			X			
PR1-042	Egiaztatzea poleek modu onargarrian funtzionatzen dutela eta koipeztatuta daudela			X			
PR1-043	Hobiaren estankotasuna egiaztatzea			X			
PR1-044	Hobiko segurtasun-etengailuen funtzionamendu onargarria egiaztatzea			X			
PR1-045	Hobiko motelgailuen funtzionamendu onargarria egiaztatzea			X			
PR1-046	Egiaztatzea mugagailuaren polea tenkatzailearen eta hobiko kontaktuaren funtzionamendu onargarria			X			
PR1-047	Kabina garbi eta elementu arrotzik gabe edukitzea			X			
PR1-048	Egiaztatzeko, hobian, kontrapisuak eta gidariko olio biltzeko erretiluak funtzionamendu onargarria dutela			X			
PR1-049	Hobiko motelgailuen egoera eta euspena egiaztatzea			X			
PR1-050	Zuloko gidarien koipeztatzea eta koipeztagailuen maila egiaztatzea			X			



PR1-051	Zuloan pitzadurak, hezetasunak eta hausturak ez daudela egiaztatzea			X			
PR1-052	Mugagailuko polearen kablearen tenkatzea egiaztatzea, baita inon ez dela bermatzen ere, eta posizio horizontala duela			X			
PR1-053	Kontrapisuko bastidorearen finkatze-tximeletak eta begidun torlojuak egiaztatzea			X			
PR1-054	Hobiko gelditzeko etengailuaren eta segurtasun-ibiltartearen funtzionamendua egiaztatzea			X			
PR1-055	Kabinako atea itxita daudela, balazta askatzea eta kabina muturreko posizioetara eramatea, eta egiaztatzea mikroetengailuek funtzionamendu onargarria dutela			X			
PR1-056	Zuloko argiak egiaztatzea			X			
PR1-057	Zuloko gidarien finkagailuak eta loturak egiaztatzea			X			
PR1-058	Zuloan kontrapisua, errozaderak, kableen lotura eta ziriztatzea egiaztatzea			X			
PR1-059	Zuloko ikuskapen-botoiak egiaztatzea			X			
PR1-060	Zuloko garbi eta elementu arrotzik gabe edukitzea			X			
PR1-061	Zuloko kableen egoera egiaztatzea			X			
PR1-062	Kabinako sabaian egiaztatzea igotzeko eta jaisteko botoiek ondo funtzionatzen dutela, berrikusteko etengailuari emanez			X			
PR1-063	Kabinako sabaian egiaztatzea katigamendu elektrikoek eta mekanikoek ondo funtzionatzen dutela			X			
PR1-064	Kabinako sabaian egiaztatzea STOP etengailuak ondo funtzionatzen duela			X			
PR1-065	Kableen lasaitze-kontaktuaren gainean jardutea, eta egiaztatzea maniobrak ez duela funtzionatzen kontaktuaren gainean berriro jardun arte; eskuz eragitea ziriztatzeke palankari			X			
PR1-066	Kabinako sabaiko zuloa, gidariak eta finkagailuak garbitzea			X			
PR1-067	Kabinako sabaia garbitzea			X			
PR1-068	Goiko aldagailuak egoera onean daudela egiaztatzea			X			
PR1-069	Kabinako sabaiko pantailen eta induktoreen egoera egiaztatzea			X			
PR1-070	Kabinako sabaian txasisaren euste-torlojuak berrikustea			X			
PR1-071	Egiaztatzea, kabinako sabaian, kableetako malguakien egoera, haien tentsioa eta euste-bridak			X			
PR1-072	Kabinako sabaian begiez egiaztatzea erortzea eragozteko elementuen egoera			X			
PR1-073	Kabinako sabaian egiaztatzea bizitzak salbatzeko gailuak ondo funtzionatzen duela			X			
PR1-074	Kabinako sabaian egiaztatzea ate automatikoen serieko kontaktuaren egoera ona			X			
PR1-075	Kabinako sabaian egiaztatzea serieko mahuka ez dagoela ez okertua, ezta koskatua ere			X			
PR1-076	Kabinako sabaia garbi eta elementu arrotzik gabe edukitzea			X			
PR1-077	Igogailuaren liburua betetzea			X			
PR1-078	Makina-gelan olioaren egoera egiaztatzea						X
PR1-079	Egiaztatzea, makina-gelan, lasaierak motorrean, erreduktorean eta poleetan						X
PR1-080	Makineria-lasaierak egiaztatzea						X
PR1-081	Makina-gelan egiaztatzea maniobraren, etengailu orokorraren, magneto termikoen, diferentzialen funtzionamendua, eta kableen eta terminal elektrikoaren egoera						X
PR1-082	Kabinan pinturaren egoera egiaztatzea						X
PR1-083	Kabinako loturak egiaztatzea						X
PR1-084	Kabinako lasaierak (zapatak, errozaderak) egiaztatzea						X
PR1-085	Egiaztatzea baleztatzean kable bakar batek ez duela polearen gainean labain egiten						X
PR1-086	Funtzionamendua egiaztatzea abiadura-mugagailuan, haren kontaktu elektrikoan, polean, polearen gupilean eta gainerako elementuetan						X
PR1-087	Kabina azpiko SOS eskatzeko telefonozko sistema garbitzea eta egiaztatzea						X
PR1-088	Egiaztatzea hobian trakzio-kableen luzapena eta kontrapisua babesteko pantaila						X
PR1-089	Egiaztatu hobiko pinturaren egoera						X
PR1-090	Kontrapisuko bastidorearen finkatze-tximeletak eta begidun torlojuak egiaztatzea						X
PR1-091	Hobiko gelditzeko etengailuaren eta segurtasun-ibiltartearen funtzionamendua egiaztatzea						X
PR1-092	Egiaztatzea, zuloan, kontrapisua, haren errozaderak, kableen lotura eta ziriztatzeari eragitea						X
PR1-093	Egiaztatu zuloko pinturaren egoera						X
PR1-094	Zuloan olio-egoera egiaztatzea						X
PR1-095	Kabinako sabaiko pinturaren egoera egiaztatzea						X
PR1-096	Eragitea atea larrialdiko giltzaz irekitzeko sistemari						X
PR1-097	Kabinako sabaiko SOS eskatzeko telefonozko gailua egiaztatzea						X
PR1-098	Makina-gelako pinturaren egoera egiaztatzea						X
PR1-099	Kabinako lur-konexioen funtzionamendua egiaztatzea						X
PR1-100	Kabinako argien difusorea garbitzea						X
PR1-101	Mugagailuaren desarra-abiadura egiaztatzea						X
PR1-102	Zuloan gidarien finkapenak eta lotuneak egiaztatzea						X



PR1-103	Kabinako sabaian ziriztatzea abiadura txikian probatzea						X
PR1-104	Kabinako sabaiko erortzea eragozteko sistemaren elementuen egoera begiez egiaztatzea						X

3.2.1.2.2 IGOGAILU HIDRAULIKOEN PREBENTZIOZKO MANTENTZE-LANAK

Eragiketa	Deskribapena	e	a	H	HH	S	U
PR2-001	Sarbideen eremuan sakagailuak eta seinaleak egiaztatzea			X			
PR2-002	Sarbideen eremuko bandak eta kristalak egiaztatzea			X			
PR2-003	Sarbideen eremuko ate guztien funtzionamendua egiaztatzea			X			
PR2-004	Sarbideen eremuko heldulekuen eta hesitxoaren euspena egiaztatzea			X			
PR2-005	Egiaztatzea, sarbideen eremuan, sarrailek, seguruak eta katigamenduek funtzionatzen dutela, eta ziurtatzea ate-seriek behar bezala funtzionatzen dutela			X			
PR2-006	Sarbideen eremuko gelditze-mailak egiaztatzea			X			
PR2-007	Makina-gelako sarbidea ikuskatzea			X			
PR2-008	Makina-gelaren atea ikuskatzea			X			
PR2-009	Makina-gelako konexio-kaxa ikuskatzea			X			
PR2-010	Makina-gelako ateko sarraila egiaztatzea			X			
PR2-011	Motor erreduktorean ihesak / olio-maila egiaztatzea			X			
PR2-012	Makina-gelan balaztaren funtzionamendua egiaztatzea			X			
PR2-013	Makina-gelan bankadarako euspena egiaztatzea			X			
PR2-014	Makina-gela garbitzea			X			
PR2-015	Makina-gelako argiak egiaztatzea			X			
PR2-016	Makina-gelan babes elektrikoaren funtzionamendua egiaztatzea			X			
PR2-017	Makina-gelan egiaztatzea igogailuaren erabilera kanpoko instalazio edo kanalizaziorik ez dagoela			X			
PR2-018	Egiaztatzea, makina-gelan, lasaierak motorrean, erreduktorean eta poleetan			X			
PR2-019	Egiaztatzea, makina-gelan, ohartarazteko plaka eta larrialdietako jarraibide guztiak ezarrita daudela			X			
PR2-020	Makina-gela garbi eta elementu arrotzik gabe edukitzea			X			
PR2-021	Olio-galerarik dagoen eta gainpresio-balbula egiaztatzea			X			
PR2-022	Egiaztatzea, makina-gelan, erortzea eragozteko balbula eta iragazkia			X			
PR2-023	Egiaztatzea, makina-gelan, pertsonak erreskatatzeko funtzionamendua			X			
PR2-024	Egiaztatzea maniobraren, etengailu orokorraren, magneto termikoen, diferentzialen funtzionamendua, eta kableen eta terminal elektrikoaren egoera			X			
PR2-025	Makina-gelan motorrearen funtzionamendua egiaztatzea			X			
PR2-026	Kabinan egiaztatzea ez dagoela sakagailu puskaturik edo askerik, botoiak ondo finkatuak daudela eta solairuak behar bezala zenbakituak			X			
PR2-027	Kabinan pitzadura, haustura eta deformaziorik dagoen egiaztatzea			X			
PR2-028	Kabinan bonbilla eta fluoreszente erroerik ez dagoela egiaztatzea			X			
PR2-029	Kabinako ateak behar bezala finkatuta daudela eta ez dutela elkar urratzen egiaztatzea			X			
PR2-030	Kabinako fotozelularen edo argi-gortinaren funtzionamendua egiaztatzea			X			
PR2-031	Larrialdi- eta alarma-argien funtzionamendua egiaztatzea kabinako elikadura elektrikoaren kenduz			X			
PR2-032	Kabinako karga-neurketa egiaztatzea			X			
PR2-033	Kabinako ateko operadorearen egoera eta lerrokadura egiaztatzea			X			
PR2-034	Kabinako loturak egiaztatzea			X			
PR2-035	Kabina garbi eta elementu arrotzik gabe edukitzea			X			
PR2-036	Kabinako interkomunikazio-sistemaren / telezerbitzuaren funtzionamendua egiaztatzea			X			
PR2-037	Balazta-palankaren eta erreskate-sistemaren funtzionamendua egiaztatzea			X			
PR2-038	Balazten egoera egiaztatzea: zapaten lodiera, eragiteko mekanismoa, koipeztatzea			X			
PR2-039	Balezatzean lerradura anormalik ez dagoela egiaztatzea			X			
PR2-040	Egiaztatzea balezatzean kable bakar batek ez duela polearen gainean labain egiten			X			
PR2-041	Poleako arteka ez dagoela mailatua edo koskatua			X			
PR2-042	Egiaztatzea, ibiltarte osoa eginda, ez dagoela kalterik ez trakzio-poleako kableetan, ezta mugagailukoetan ere			X			
PR2-043	Poleetan zigilua dagoela egiaztatzea			X			
PR2-044	Egiaztatzea poleen funtzionamendua eta koipeztatuta daudela			X			
PR2-045	Hobiaren estankotasuna egiaztatzea			X			
PR2-046	Segurtasun-etengailuen funtzionamendua egiaztatzea			X			
PR2-047	Hobiko motelgailuen funtzionamendua egiaztatzea			X			
PR2-048	Mugagailuaren polea tenkatzailearen eta kontaktuaren egoera egiaztatzea			X			
PR2-049	Kabina garbi eta elementu arrotzik gabe edukitzea			X			



PR2-050	Egiaztatzea, hobian, kontrapisuaren eta gidariko olio biltzeko erretiluaren funtzionamendua			X			
PR2-051	Pistoi-euskarriaren egoera egiaztatzea			X			
PR2-052	Hobian motelgailuen egoera eta euspina egiaztatzea			X			
PR2-053	Gidarien koipeztatzea eta koipeztagailuen maila egiaztatzea			X			
PR2-054	Egiaztatzea, zuloan, pitzadurak, hezetasunak eta hausturak ez daudela, eta objekturik ez dela erori			X			
PR2-055	Mugagailuko polearen kablearen tenkatzea egiaztatzea, baita inon ez dela bermatzen ere, eta posizio horizontala duela			X			
PR2-056	Kontrapisuko bastidorearen finkatze-tximeletak eta begidun torlojuak egiaztatzea			X			
PR2-057	Hobiko gelditzeko etengailuaren eta segurtasun-ibiltartearen funtzionamendua egiaztatzea			X			
PR2-058	Kabinako atea itxita daudela, balazta askatzea eta kabina muturreko posizioetara eramatea, eta egiaztatzea mikroetengailuek funtzionamendu onargarria dutela			X			
PR2-059	Zuloko argiak egiaztatzea			X			
PR2-060	Gidarien finkapenak eta lotuneak egiaztatzea			X			
PR2-061	Kontrapisua, haren errozaderak, kableen lotura eta ziriztatzea egiaztatzea			X			
PR2-062	Ikuskapen-botoiak egiaztatzea			X			
PR2-063	Zuloa garbi eta elementu arrotzik gabe edukitzea			X			
PR2-064	Zuloan kableen egoera egiaztatzea			X			
PR2-065	Egiaztatzea, kabinako sabaian, berrikusteko etengailuari eraginez, igotzeko eta jaisteko botoiek behar bezala funtzionatzen dutela			X			
PR2-066	Kabinako sabaian katigamendu elektrikoak eta mekanikoak egiaztatzea			X			
PR2-067	Kabinako sabaiko STOP etengailuaren funtzionamendua egiaztatzea			X			
PR2-068	Kabinako sabaian, kableen lasaitze-kontaktuaren gainean jardutea, eta egiaztatzea maniobrak ez duela funtzionatzen kontaktuaren gainean berriro jardun arte; eskuz eragitea ziriztatze palankari			X			
PR2-069	Zuloa, gidariak eta finkapenak garbitzea			X			
PR2-070	Kabinako sabaia garbitzea			X			
PR2-071	Kabinako sabaian mikroetengailuen/goiko aldagailuen egoera egiaztatzea			X			
PR2-072	Kabinako sabaiko pantailen eta induktoreen egoera egiaztatzea			X			
PR2-073	Kabinako sabaia txasisaren euste-torlojuak berrikustea			X			
PR2-074	Egiaztatzea, kabinako sabaian, kableetako malgukien egoera, haien tentsioa eta euste-bridak			X			
PR2-075	Begiez egiaztatzea erortzea eragozteko elementuen egoera			X			
PR2-076	Bizitzak salbatzeko gailuaren funtzionamendua egiaztatzea			X			
PR2-077	Ate automatikoen serieko kontaktuaren egoera ona egiaztatzea			X			
PR2-078	Egiaztatzea serieko mahuka ez dagoela ez okertua, ezta koskatua ere			X			
PR2-079	Kabinako sabaia garbi eta elementu arrotzik gabe edukitzea			X			
PR2-080	Igogailuaren liburua betetzea			X			
PR2-081	Makina-gelan olioaren egoera egiaztatzea						X
PR2-082	Egiaztatzea, makina-gelan, lasaierak motorrean, erreduktorean eta poleetan						X
PR2-083	Egiaztatzea, makina-gelan, zentral hidraulikoaren segurtasun-balbula						X
PR2-084	Makina-gelan, makinaren lasaierak egiaztatzea						X
PR2-085	Egiaztatzea maniobraren, etengailu orokorraren, magneto termikoen, diferentzialen funtzionamendua, eta kableen eta terminal elektrikoaren egoera						X
PR2-086	Kabinan pinturaren egoera egiaztatzea						X
PR2-087	Kabinako loturen funtzionamendua egiaztatzea						X
PR2-088	Kabinako lasaierak (zapatak, errozaderak) egiaztatzea						X
PR2-089	Egiaztatzea baleztatzean kable bakar batek ez duela polearen gainean labain egiten						X
PR2-090	Funtzionamendua egiaztatzea abiadura-mugagailuan, haren kontaktu elektrikoan, polean, polearen gurrpilean eta gainerako elementuetan						X
PR2-091	Pistoi-euskarriaren egoera egiaztatzea						X
PR2-092	Kabina azpiko SOS eskatzeko telefonozko sistema garbitzea eta egiaztatzea						X
PR2-093	Egiaztatzea hobiko pinturaren egoera						X
PR2-094	Zuloan, kontrapisuko bastidorearen finkatze-tximeletak eta begidun torlojuak egiaztatzea						X
PR2-095	Hobiko gelditzeko etengailuaren funtzionamendua eta zuloko segurtasun-ibiltartearen funtzionamendua egiaztatzea						X
PR2-096	Egiaztatzea, zuloan, kontrapisua, haren errozaderak, kableen lotura eta ziriztatzeari eragitea						X
PR2-097	Egiaztatzea zuloko pinturaren egoera						X
PR2-098	Olio-egoera egiaztatzea						X
PR2-099	Kabinako sabaiko pinturaren egoera egiaztatzea						X
PR2-100	Eragitea, kabinako sabaian, atea larrialdiko giltzaz irekitzeko sistemari						X
PR2-101	Kabinako sabaiko pinturaren SOS eskatzeko telefonozko gailua egiaztatzea						X
PR2-102	Erortzea eragozteko balbularen eta iragazkiaren funtzionamendua egiaztatzea						X
PR2-103	Makina-gelako pinturaren egoera egiaztatzea						X



PR2-104	Kabinan lur-konexioen funtzionamendua egiaztatzea						X
PR2-105	Kabinako argien difusorea garbitzea						X
PR2-106	Mugagailuaren desarra-abiadura egiaztatzea						X
PR2-107	Gidarien finkapenak eta lotuneak egiaztatzea						X
PR2-108	Kabinako sabaiko ziriztatzea abiadura txikian probatzea						X
PR2-109	Begiez egiaztatzea erortzea eragozteko elementuen egoera						X

3.2.1.2.3 KARGA-JASOGAILU HIDRAULIKOEN PREBENTZIOZKO MANTENTZE-LANAK

Eragiketa	Deskribapena	e	a	H	HH	S	U
PR3-001	Sartzeko eremuko sakagailuak eta seinaleak egiaztatzea			X			
PR3-002	Sartzeko eremuko bandak eta kristalak egiaztatzea			X			
PR3-003	Sartzeko eremuetan ate guztien funtzionamendua eta haien egoera egiaztatzea			X			
PR3-004	Gehieneko kargaren plaka egiaztatzea			X			
PR3-005	Makina-gelan babes elektrikoaren funtzionamendua egiaztatzea			X			
PR3-006	Kaxa elektrikoaren egoera egiaztatzea			X			
PR3-007	Hodien egoera egiaztatzea			X			
PR3-008	Zuloko argiak egiaztatzea			X			
PR3-009	Polea-buruko gidariak garbitzea eta koipeztatzea			X			
PR3-010	Estribuko gidariak garbitzea eta koipeztatzea			X			
PR3-011	Hobia garbitzea			X			
PR3-012	Hobian egiaztatzea izan litezkeen iragazpenak			X			
PR3-013	Estribuko gidariak garbitzea eta koipeztatzea			X			
PR3-014	Karga-jasogailuaren liburua betetzea			X			
PR3-015	Sartzeko eremuko sakagailuak eta seinaleak egiaztatzea					X	
PR3-016	Sartzeko eremuko bandak eta kristalak egiaztatzea					X	
PR3-017	Sartzeko eremuetan ate guztien funtzionamendua eta haien egoera egiaztatzea					X	
PR3-018	Gehieneko kargaren plaka egiaztatzea					X	
PR3-019	Abiadurak egiaztatzea					X	
PR3-020	Makina-gelan babes elektrikoaren funtzionamendua egiaztatzea					X	
PR3-021	Kaxa elektrikoa egiaztatzea					X	
PR3-022	Hodien egoera egiaztatzea					X	
PR3-023	Zentralaren funtzionamendu orokorra egiaztatzea					X	
PR3-024	Manometroaren egoera egiaztatzea					X	
PR3-025	Makina-gelan errebelazioa egiaztatzea					X	
PR3-026	Deriben kontrako sistemaren presostatoak egiaztatzea					X	
PR3-027	Zuloko argiak egiaztatzea					X	
PR3-028	Polea-buruaren kojiniteak koipeztatzea					X	
PR3-029	Polea-buruko gidariak garbitzea eta koipeztatzea					X	
PR3-030	Estribuko gidariak garbitzea eta koipeztatzea					X	
PR3-031	Zilindroko olio-ihesak egiaztatzea					X	
PR3-032	Kateak ikuskatzea					X	
PR3-033	Kateak koipeztatzea					X	
PR3-034	Kableak ikuskatzea					X	
PR3-035	Kableak koipeztatzea					X	
PR3-036	Gelditzeko zehaztasuna egiaztatzea					X	
PR3-037	Deriben kontrako euskarriak egiaztatzea					X	
PR3-038	Alboko babesen egoera egiaztatzea					X	
PR3-039	Hobiaren garbiketa egiaztatzea					X	
PR3-040	Hobian egiaztatzea izan litezkeen iragazpenak					X	
PR3-041	Izan litezkeen olio-ihesak egiaztatzea					X	
PR3-042	Estribuko gidariak egiaztatzea, garbitzea eta koipeztatzea					X	
PR3-043	Blokeatzeko gailuaren plaka egiaztatzea					X	
PR3-044	Deriben kontrakoaren egoera egiaztatzea					X	
PR3-045	Karga-jasogailuaren liburua betetzea					X	
PR3-046	Sartzeko eremuko sakagailuak eta seinaleak egiaztatzea						X
PR3-047	Sartzeko eremuko bandak eta kristalak egiaztatzea						X
PR3-048	Sartzeko eremuetan ate guztien funtzionamendua eta haien egoera egiaztatzea						X
PR3-049	Gehieneko kargaren plaka egiaztatzea						X
PR3-050	Abiadurak egiaztatzea						X
PR3-051	Plataformaren eta zuloaren arteko lasaiera egiaztatzea						X
PR3-052	Babes elektrikoaren funtzionamendua egiaztatzea						X
PR3-053	Kaxa elektrikoa egiaztatzea						X
PR3-054	Hodien egoera egiaztatzea						X



PR3-055	Zentralaren funtzionamendu orokorra egiaztatzea								X
PR3-056	Manometroaren egoera egiaztatzea								X
PR3-057	Eskuz jaisteko sakagailua egiaztatzea								X
PR3-058	Ixteko giltza egiaztatzea								X
PR3-059	Taldean izan litezkeen ihesak egiaztatzea								X
PR3-060	Olio-egoera egiaztatzea								X
PR3-061	Xurgatze-iragazkiaren garbitasuna egiaztatzea								X
PR3-062	Olio-maila egiaztatzea								X
PR3-063	Errebelazioa egiaztatzea								X
PR3-064	Deriben kontrako sistemaren presostatoak egiaztatzea								X
PR3-065	Motorraren funtzionamendu-denboraren mugagailua egiaztatzea								X
PR3-066	Zuloko argiak egiaztatzea								X
PR3-067	Buruaren lasaiera egiaztatzea								X
PR3-068	Poleak eta gurrpil horzdunak egiaztatzea								X
PR3-069	Polea-buruaren kojiniteak koipeztatzea								X
PR3-070	Estribuaren lasaiera egiaztatzea								X
PR3-071	Polea-buruko gidariak garbitzea eta koipeztatzea								X
PR3-072	Estribuko gidariak garbitzea eta koipeztatzea								X
PR3-073	Zilindroko olio-ihesak egiaztatzea								X
PR3-074	Kateak egiaztatzea								X
PR3-075	Kateak koipeztatzea								X
PR3-076	Kableak egiaztatzea								X
PR3-077	Kableak koipeztatzea								X
PR3-078	Gelditzeko zehaztasuna egiaztatzea								X
PR3-079	Deriben kontrako euskarriak egiaztatzea								X
PR3-080	Alboko babesen egoera egiaztatzea								X
PR3-081	Maniobra-kordoia egiaztatzea								X
PR3-082	Gidarien finkapenak egiaztatzea								X
PR3-083	Pinturaren egoera egiaztatzea								X
PR3-084	Hobia garbitzea								X
PR3-085	Hobian egiaztatzea izan litezkeen iragazpenak								X
PR3-086	Hobian izan litezkeen olio-ihesak egiaztatzea								X
PR3-087	Estribuko gidariak garbitzea eta koipeztatzea								X
PR3-088	Blokeatzeko gailuaren plaka egiaztatzea								X
PR3-089	Konexio elektrikoaren egoera egiaztatzea								X
PR3-090	Deriben kontrakoaren egoera egiaztatzea								X
PR3-091	Altzairuzko kableen finkapenaren egoera egiaztatzea								X
PR3-092	Pinturaren egoera egiaztatzea								X
PR3-093	Erortzea eragozteko gailua egiaztatzea								X
PR3-094	Karga-jasogailuaren liburua betetzea							X	
PR1-095	Kabinako sabaiko pinturaren egoera egiaztatzea							X	
PR1-096	Eragitea ateak larrialdiko giltzaz irekitzeko sistemari							X	
PR1-097	Kabinako sabaiko SOS eskatzeko telefonozko gailua egiaztatzea							X	
PR1-098	Makina-gelako pinturaren egoera egiaztatzea							X	
PR1-099	Kabinako lur-konexioen funtzionamendua egiaztatzea							X	
PR1-100	Kabinako argien difusorea garbitzea							X	
PR1-101	Mugagailuaren desarra-abiadura egiaztatzea							X	
PR1-102	Zuloan gidarien finkapenak eta lotuneak egiaztatzea							X	
PR1-103	Kabinako sabaian ziriztatzea abiadura txikian probatzea							X	
PR1-104	Kabinako sabaiko erortzea eragozteko sistemaren elementuen egoera begiez egiaztatzea							X	



3.2.1.3 MANTENTZE ZUZENTZAILEA

Mantentze-lan zuzentzaileak:

- **Mantentze-lan zuzentzaile programatua.** Mantentze-lan zuzentzaile programatuaren helburua izango da akatsak zuzentzea, hain zuzen, funtzionaltasunaren nahiz erabilgarritasunaren galera ekarri ez izanagatik, elementuen iraunkortasuna eta efizientzia arriskuan jartzen dituzten akatsak. Lan hauek egitean bermatuko da elementuak erabili gabe dauden denbora ahalik eta laburrena izatea.
- **Matxurak konpontzea.** Matxurak gertatzen direnean konponduko dira, baldin eta horrela elementua eramaten bada behar den funtzioa garatu ahal izateko egoerara.

Posible bada, konponketak instalazioetan beraietan egingo dira, elementu konplexuak ordeztzea edo ukitutako elementuak lantegira eramatea behar duten garrantzi bereziko konponketen kasuan izan ezik.

Prebentziozko mantentze-lanak egitean, atzematen diren akats guztiak zuzenduko dira; ondorioz, aurreikustekoa da matxurak aldi berean bakarrik gertatzea.

Urteko 365 egunetako 24 orduetan, enpresa adjudikaziodunak hitzematen du ahalik eta lasterren kudeatu eta konponduko dituela kontratuaren xede diren elementuetan gertatzen diren matxurak. Lanak 4 orduko epean hasi beharko dira, matxura jakinarazten den unetik aurrera zenbatuta.

«Akats txikiak» eta/edo «matxura txikiak» (hau da, konpontzeko gehienez 16 ordu behar dituztenak eta/edo gehienez 250,00 euroren ordezkotako pieza dituztenak) ez dira bereiz fakturatuko, prebentziorako mantentze-lanen prezioaren barruan baitaude.

Akats eta matxura «handiak» (hau da, konpontzeko 16 ordu baino gehiago behar dituztenak eta/edo gehienez 250,00 euro baino gehiagoren ordezkotako pieza dituztenak) bereiz fakturatuko dira, kontratuko oinarriko prezioen arabera. Kasu honetan, lehenengo 16 orduak ez dira fakturatuko.

Kontratu-zuzendaritzak akats eta matxura «handiak» onartu beharko ditu egin aurretik.

3.2.2 BESTE LAN BATZUK

Aurretik zehaztutakoez gain, beste lan batzuk ere jaso beharko dira. Honako hauek:

- Ekipo zaharkituak ordeztzea edo modernizatzea.
- Instalazioak xedapen berrietara egokitzea edo erregulamenduzko aldizkako ikuskapenen ondorioz egokitzea.
- Elementu berriak ezartzea.
- Beste bat

Kontratu-zuzendaritzak onartu beharko ditu atal honen xede diren lanak egin aurretik, eta kontratuaren esparrutik aterako dira, baldin eta, kontratu-zuzendaritzaren ustetan, hala aholkatzen duten inguruabarrak badaude (presa, zehaztasun teknikoa, zenbatekoa eta abar). Lanak kontratatuko dira BBUPeko kontratazio-prozeduren bidez.

3.2.3 ALARMAK KOMUNIKATZEKO SISTEMAK EGOKITZEA

BBUPen igogailuek mantentze-enpresaren alarma-zentralarekin komunikatzeko sistema dute, eta BBUP da telefono-linearen titularra.

Adjudikaziodunak, beharrezko bada, kontratuan zehaztutako igogailuen alarmak komunikatzeko ekipoak egokitu eta konfiguratu ditu. Egokitzearen prezioak modu proportzionalan jasotzen dira prezio unitarioetan, eta, ondorioz, ez dira bereizita ordainduko.

3.3 ORDEZKO PIEZAK, MATERIAL SUNTSIKORRAK ETA MATERIAL TXIKIA

Kontratista adjudikaziodunak hornitu beharko ditu zerbitzua egiteko behar diren ordezkotako pieza, material suntsikor eta material txiki guztiak, instalazioen erabilgarritasun operatiboa bermatzeko. Ordezko piezak eta material suntsikorak jatorrizkoak izango dira, ahal bada, eta horrela izan ezean, kontratu-zuzendaritzaren onespena izan beharko dute.



Mantentze-lanak (prebentziozkoak eta zuzentzaileak) egiteko behar diren ordezeko pieza txikien kostua (250,00 eurotik beherako zenbateko unitarioa eta gehienez 9.000 euroko zenbateko osoa) kontratuaren prezioetan jasota daude, eta ez dira bereiz fakturatuko.

Ordezko prezioek 250,00 eurotik gorako prezio unitarioa badute, kontratu-zuzendaritzak erabakiko du, BBUPen interesen arabera, ordezeko pieza kontratistak edo BBUPEk hornitzen duen, kontuan hartuta ekipo mota eta uneko premiak.

Nolanahi ere, kontratistak nahitaez hornitu beharko ditu, kontratu-zuzendaritzak egoki iritziz gero.

Antzeko lanetan izandako esperientzian oinarrituta, zerbitzua behar bezala garatzeko egoki deritzen 250,00 eurotik gorako ordezeko piezen zerrenda baloratua proposatuko du kontratistak.

Ordezgutako piezak eta material suntsikorrak eta haien enbalajeak, bai eta erabilitako material txikiaren hondarrak ere, hondakintzat jotzen dira, eta, oro har, GARBIKETA ETA HONDAKINAK atalean zehazten den moduan tratatu beharko dira.

Ordezgutako piezak eta suntsikorrak hondakintzat hartzen badira ere, eta, arau orokor gisa, aurreko paragrafoan adierazi bezala tratatu beharrekoak, kontratu-zuzendaritzak eskatu ahalko du haiek BBUPi ematea, betiere BBUPen interesek hala aholkatzen badute.

3.4 LEGEZTATZEA

Kontratutakoak horrela behar izanez gero, kontratistak egin beharko ditu instalazioak legeztatze behar diren lan eta izapide tekniko-administratibo guztiak (eskaerak, proiektuak idatzi eta ikus-onestea, ikuskapen ofizialak, etab.). Kontratistaren kontura izango dira baimendutako kontrol-erakundeak egin beharreko saiakuntza, egiaztapen, proba, ikuskapen eta abarrek eragindako gastu guztiak, haiek egiteko behar diren elementuak barne, eta kontratistak, lanak amaitzean, sortutako dokumentazio guztia kontratu-arduradunari emango dio.

3.5 KONTRATISTAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA ETA TXOSTENAK

Prozesua efizientziaz egiten dela ziurtatzeko, informazioaren berri izan behar da, eta informazioa eguneratua izan; gainera, hura dokumentatu, erregistratu eta artxibatu behar da.

Kontratua ez da amaituko, harik eta eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu eta kontratu-arduradunak onartu arte.

3.5.1 INFORMAZIOA

BBUPek kontratistaren esku jarriko du bere esku dagoen dokumentazio guztia, kontratua erraz garatzeko.

Kontratistak konpromisoa hartzen du kontratua garatzeko BBUPetik lortutako informazioa isilpean gordetzeko, eta, bereziki, erabilitako teknologiar, iturburu-programei, prozedurei, software industrialari, plano eta eskemei, zehaztapenei eta jarraibideei dagokienez. Horiek guztiak inolako aldaketarik egin gabe itzuliko zaizkio BBUPi.

3.5.1.1 INFORMAZIOA EGUNERATZEA

Ezarritako legezko xedapenak betetzeko, enpresa adjudikaziodunak hau egin beharko du:

- KONTROL ETA MANTENTZE-LANETARAKO JARRAIBIDEEN LIBURUA eduki (gehitu, halakorik egon ezean). Administrazioak bideratuko du, eta instalazioaren ezaugarrien datuez gain, arduradunak egindako mantentze-lanak eta aldizkako proba ofizialak edukiko ditu, baita haiek egin zituen KEEren eta ikuskatzailearen datuak ere.
- Kontratuaren barruko igogailu mota bakoitzaren mantentze-lan espezifikoaren plana aurkeztu.
- Aplikatu beharreko legezko xedapenek eskatutako agiri guztiak eduki.

3.5.2 KONTRATISTAK AURKEZTU BEHARREKO TXOSTENAK

Funtsezkoa da BBUPek bere produkzio-jarduerari eusteko egiten den ahalegina ezagutzea eta kuantifikatzea. Horretarako, eta mantentze-lanak etengabe hobetzeko oinarri gisa, beharrezkoa da informazioa izatea, eta, ondorioz, Kontratistak txosten hauek aurkeztu beharko ditu:



3.5.2.1 EGINDAKO LANEN TXOSTENA

Mantentze-lan bakoitza (prebentziozkoa edo zuzenketazkoa) edo bestelako lanak egin ostean, kontratistak EGINDAKO LANAREN TXOSTENA beteko du, eta bertan, langile bakoitzak honako informazio hau zehaztuko du gutxienez:

- Egindako eragiketa guztien zerrenda, igogailurako mantentze-plan espezifiko batez izana zehaztuta, baita hura gauzatu bitartean hautemandako gorabehera eta anomalia guztiak ere, barne hartuta erabiltzaileen segurtasunean eragina dutenak, 355/2024 Errege Dekretuaren arabera (AEM 1 ITO).
- Lan horretan esku hartu duten langileen zerrenda, egindako lan bakoitzean langileek izan duten dedikazioa ordutan zehaztuta.
- Egindako eragiketa bakoitzean erabilitako ordezkariak, suntsikorrak, material txikiak eta bitarteko lagungarriak zerrenda, kopuruak, prezio unitarioak eta prezio partzialak banakaturik.
- Aurkitutako gabeziak, lan-ekipoak erabili bitartean langileen segurtasunean eragina dutenak, 1215/1997 Errege Dekretua betez.
- Hala badagokio, behar diren erabilitako lan-prozedurak eta ekipoak 1215/1997 Errege Dekretua egokitzeko proposatu eta baloratutako jarduketak zuzentzaileak.
- Igogailuaren mantentze-lanak eta segurtasuna hobetzeko proposamena, jardunbide egokiak eta indarreko araudiaren (355/2024 Errege Dekretua) ildotik.

Behin mantentze-lanak (prebentziozkoa nahiz zuzenketazkoa) eginda, jarduketaren erregistroa egingo da, barne hartuta igogailuaren segurtasun- eta funtzionamendu-betekizunak betetzea ziurtatzeko behar diren egiaztapenak, 355/2024 Errege Dekretuaren arabera (AEM 1 ITO). Kontratistak bermatuko du mantentze-lanak egiten direla langileen segurtasuna zainduz, 1215/1997 Errege Dekretua betez.

3.5.2.2 HILEKO TXOSTENA

Hilero, kontratistak HILEKO TXOSTENA egingo du. Hona hauek izango ditu txostenak:

- Mantentze-zerbitzuaren kudeaketa-adierazleen emaitza:
 - Prestasuna kokalekuko
 - Konpontzeko batez besteko denbora (MTTR)
 - Prebentziozko mantentzearen betetze-maila
- Egindako lanen banakapena, non adieraziko den zenbat jarduketa egin diren eta zenbat ordu eskaini dizkion langile bakoitzak jarduera bakoitzari, mantentze-lanaren arabera (prebentziozkoa, matxurak, aldaketa eta abar).
- Izandako gorabeheren erregistro xehea, honako hauek deskribatuko dituenak: akatsak, horien zergatiak, eta akatsak konpontzeko hobekuntza-proposamenak.
- Kontratuaren xede diren instalazioen mantentze-lanak eta erabilgarritasuna hobetzeko egokitzat jotako proposamen guztiak.
- Egindako lanen ZERRENTA BALORATU sinatua (neurketen eta kontratuaren aurrekontuaren arabera), ziurtagiria emateko oinarria izango dena.
- Kontratu-aurrekontuaren jarraipena

4. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Kontratistaren antolamendu-egiturak behar beste baliabide izango ditu kontratua behar bezala kudeatzeko eta BBUPi lanak egiaztatzen eta emaitzak kontrolatzen eta aztertzen laguntzeko.

Kontratistak, gutxienez, bere kontura eduki beharko ditu ondoren zehazten diren giza baliabideak eta baliabide materialak, eta haien kostua bere gain hartuko du kontratuaren gutzizko zenbateko ekonomikoaren barruan.

4.1 GIZA BALIABIDEAK

- Kontratuaren arduradun bat, kontratuaren gaiaren inguruko espezialitate batean goi-mailako titulazio tekniko eta bost urtetik gorako esperientzia duena; Kontratistaren plantillan integratuta egongo da eta Kontratistaren Ordezkari gisa jardungo du, eta Kontratuaren Zuzendaritzaren aurrean solaskidea eta lan arduradun nagusia izango da.
- Giza baliabide espezializatuak, kopuru eta kualifikazio nahikoarekin, kontratua kontratu-baldintzetan betetzen dela bermatzeko.



BBUPen instalazioetan lan egiten duten langile guztiek lanok egiteko behar den konpetentzia profesionala eta prestakuntza-maila izango dute, eta kontratistaren ardura izango da bere ekipoak kontratatutako zerbitzuen xedera egokitzea.

Langile guztiek portaera egokia izan beharko dute, behar bezala unformatuta, txukun eta behar bezala identifikatuta egon behar dute une oro —identifikazio-txartel pertsonala ageriko leku batean eramango dute—.

BBUPek beretzat gordetzen du langileak ordeztatzeko eskubidea, baldin eta langileak ez badatoz bat lehen aipatutako eskakizunekin, edo ez badute agindutako lanerako behar besteko gaitasunik eta trebetasunik erakusten, kontratu-zuzendaritzaren iritziz.

4.2 BALIABIDE MATERIALAK

- Kontratu honen xede diren lanak behar bezala egiteko beharrezkoak diren erremintak, makinak, eta era guztietako ibilgailuak, norbera eta taldea babesteko ekipamenduak eta beste.
- Lantegiak, bulego-lokalak eta aldagela propioak edo alokatuak, kontratua betetzeko behar diren giza baliabideen kopuruarekin bat datozenak (BBUPek ez du lokalik emango langileen bulego, aldagela, komun eta abarretarako, ezta erremintak, makinak eta ibilgailuak gordetzeko ere, eta kontratistaren kontura izango dira arrazoi horiengatik sortzen diren gastu guztiak).

Lanen iraupenaren arabera, oro har eta instalazioan toki nahikorik badago, adjudikaziodunak bere kontura, eta Kontratuaren zuzendariaren nahitaezko onespeneren ostean, instalatuko dituen kontratatutako lanak normaltasunez egiteko behar diren etxolak, higiene-zerbitzuak, biltegiak eta bilketak. Adjudikazioduna izango da eremu horietan ordena eta garbitasuna mantentzeko arduradun bakarra. Eremu horiek egunero txukundu beharko dituzte lanaldia amaitzean. BBUPek eskubidea izango du, zabarkeriarik antzemanaz gero, eremu horiek hirugarren bat kontratatuta egiteko, eta adjudikaziodunaren kontura joango da zerbitzuaren kostua.

Adjudikaziodunaren kontura joango dira honako lan hauek eragindako gastuak: lursaila egokitzea; instalazioak ezartzea, kentzea eta lekuz aldatzea; obra osagarriak eraistea, eta okupatutako azalerak egokitu eta garbitzea jatorrizko itxura berreskuratzeko. Lan horiek kontratuaren zuzendariaren adostasuna lortu beharko dute kontratua bukatutzat jo dadin.

Adjudikaziodunaren ibilgailuak BBUPen instalazioetan aparkatzeko, betiere horretarako lekua badago, kontratuaren zuzendariak eman beharko du baimena, eta adjudikaziodunaren langileak instalazioan dauden bitartean bakarrik aparkatu ahal izango da.

BBUPek ez du bere gain hartzen adjudikaziodunaren bitarteko osagarrietan izandako lapurreten edo kalteen erantzukizunik. Horrenbestez, egokitze jotzen dituen neurriak hartu beharko ditu lanak amaitu arte ekipoen segurtasuna bermatzeko.

4.3 HORNIDURAK

Kontratua behar bezala gauzatzeko behar diren hornidurak, erregaiak, komunikazioak eta beste adjudikaziodunaren kontura izango dira.

Oro har eta Kontratuaren zuzendariak berariazko baimenik eman ezean, adjudikaziodunak ezin izango ditu erabili BBUPen instalazioetako energia-iturriak (elektrikoa barne). Horrenbestez, bere bitartekoak erabiliz sortuko du (behar den legeko dokumentazioa edukita) kontratatutako lanak exekutzeko behar duen energia elektrikoa.

Ura hartzeko aukera izango du zehazten zaion tokian, eta saneamendu-sarerako lotunea ere izango du (beharrezkoa bada); adjudikaziodunaren ardura izango da langunearainoko edo langunetiko uraren banaketa- eta saneamendu-sarea. Indarrean dauden erregelamenduak eta dagozkien segurtasun-arauak betez egingo dira biak, eta kontratuaren zuzendariaren oniritzia izango dute.

4.4 BITARTEKO OSAGARRIAK

Enpresa adjudikaziodunak behar beste baliabide osagarri, aldamio, garabi, plataforma, ekipo elektrogeno eta abar hornitzeko betebeharra du.



Bitarteko osagarrien, aldamioen, garabien, plataformen, ekipo elektrogenoen eta abarren prezioak modu proportzionalen jasotzen dira unitateko prezioetan, eta, ondorioz, ez dira bereizita ordainduko.

5. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak administrazio-baldintza partikularren agirian zehaztutakoa bete beharko du.

6. KONTRATUAREN BALDINTZA OROKORRAK

Kontratua agiri honetan adierazitako baldintzak betez egingo da, kontratistaren erantzukizunpean.

Kontratistak kontratuaren xede diren jarduera guztietan aplikatu beharreko legeria, erregelamenduak eta legezko araudia bete beharko ditu, baita BBUPek ezarritako prozedurak ere.

Jarduteko moduari buruzko edozein zalantza izanez gero, kontratistak kontratu-zuzendaritzara joko du, informazioa biltzeko.

6.1 KONTRATUAREN HASIERA ETA AMAIERA

Erabat debekatuta dago BBUPeko instalazioetan inolako jarduerarik hasia Kontratuaren Zuzendaritzaren berariazko baimenik gabe.

Kontratuaren indarraldia igarotakoan amaituko da kontratua.

6.2 PROZEDURAK

Kontratistak bere kontura eta bere bitartekoak erabiliz eramango ditu BBUPen instalazioetara kontratuaren xede diren lan guztiak egiteko behar diren langileak eta baliabide materialak.

Kontratistak lanen plangintza egingo du, eta plangintza hori Aktiboak Kudeatzeko Zuzendariordetzako Plangintza Arloetara bidali beharko da, haiek arduratuko baitira dagozkion lan-aginduak emateaz (era guztietako jarduketak egiteko ezinbesteko dokumentua).

Enpresa adjudikaziodunak Kontratuaren Zuzendaritzak gorabeherak, akatsak, matxurak, urgentzia- edo larrialdi-egoerak eta beste jakinarazteko ezarritako prozedurak onartuko ditu.

Mantentze zuzentzaileari dagokionez, mantentze-lanak egiten dituen enpresak abisu-prozedura bat ezarri beharko du, mantentze-lan zuzentzaileak abisua ematen den unetik aurrera ezarritako gehieneko epean hasiko direla ziurtatzen duen baldintza beteko dela bermatzeko.

6.3 LANEN KOORDINAZIOA

Kontratistari dagokio agiri honen xede diren lanak eta zerbitzu osagarriak ematen dituzten enpresenak koordinatzea.

BBUPek kontratatzen dituen enpresek zerbitzuak era sinergikoan eta koordinatuan ematea sustatu eta erraztuko du.

Kontratistaren lanak prozesuko lana edo aldi berean egiten diren «bestelako» lanak oztopatzen dituenean, kontratu-zuzendaritzak horretarako baimena ematen duenean baino ez dira hasiko lanak egiten.

6.4 KONTRATUAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA

Kontratu-zuzendaritza kontratu-arduradun baten esku egongo da (BBUPeko plantillako ingeniaria). Arduradun horrek teknikari arduradun baten laguntza (BBUPeko langilea) eta/edo kanpoko laguntza teknikoa izango du. Langile hori arduratuko da kontratua betetzeko zuzendaritza-, jarraipen- eta kontrol-lanez.

Kontratu-zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen dituen kontrol-neurriak ezarri ahal izango ditu kontratuaren kondizioak behar bezala betetzen direla ziurtatzeko, eta egindako lanen maila teknikoa egiaztatzeko egokitzen.



jotzen dituen ausazko ikuskapen guztiak egingo ditu.

Kontratuaren zuzendaritzak eskatzen duenean, enpresa adjudikazioduneko teknikariek presente egon beharko dute lan garrantzitsuak egiten diren bitartean.

6.5 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

Lanak egiteaz arduratzen diren langileek aplikatu beharreko laneko arriskuen prebentzioko legeak, arauak eta erregelamenduak oso-osorik beteko dituzte une oro.

Kontratistari dagokio laneko segurtasunaren eta osasunaren arloko prebentzio-jarduerak antolatzea, bere jardura propioak ez ezik, azpikontratutako enpresenak ere bai.

Kontratistak BBUPeko Laneko Arriskuen Prebentziorako Sailaren kondizio guztiak bete beharko ditu, II. ERANSKINEAN (ENPRESA KONTRATISTEK EGINDAKO LANETAN LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIORAKO PROZEDURA ESPEZIFIKOA) zehazten den bezala.

BBUPen Prebentzio Zerbitzuek baliozkotu beharko dute prebentzio-jardura guztia.

Betebehar horiek kontratu-izaera izango dute.

6.6 INGURUMENA

Lanak egiteaz arduratzen diren langileek ingurumenari buruz aplikatu beharreko legeria, araudi eta erregelamendu osoa beteko dute une oro.

Kontratistari dagokio ingurumenaren arloko jarduerak antolatzea, bai berarenak, bai azpikontratitzen dituen enpresenak.

Kontratistak III. ERANSKINEAN (INGURUMENA) zehazten diren BBUPeko Iraunkortasun, Teknologia eta Berrikuntzako Zuzendariordetzaren kondizio guztiak bete beharko ditu, eta, behar izanez gero, horiek betetzen direla erakusten duten ebidentziak eman.

Ingurumenarekin lotutako jardura guztiak BBUPen Iraunkortasun, Teknologia eta Berrikuntzako Zuzendariordetzak baliozkotu beharko ditu.

Betebehar horiek kontratu-izaera izango dute.

6.6.1 GARBIKETA ETA HONDAKINAK

Kontratistak garbiketa-egoera onargarrian eduki beharko ditu kontratu honen xede diren lanak egiteko sartzen den instalazioak eta esparruak.

Kontratistaren ardura da bere lanak egin bitartean sortutako hondakin guztiak kudeatzea, eta berariaz debekatuta dago era guztietako hondakinak BBUPen instalazioetan ezabatzea edo biltzea. Hondakinak indarreko legeria aplikagarriaren arabera kudeatuko dira, eta BBUPen eskura egongo dira hondakinak behar bezala kudeatzen direla frogatzen duten egiaztagiriak.

Aipatutako betekizunen bat betetzen ez bada, kontratuaren zuzendariak hirugarren bati emango dio betebehar horiek egiteko ardura. Sortutako gastuak kontratistari deskontatuko zaizkio dagokion ziurtagirian.

6.7 KALITATEA ZIURTATZEA

Lizitatzailerak bere erakundeak kontratuaren betekizunak betetzeko gaitasuna duela ziurtatuko du.

Gaitasun hori ISO 9001 2008 ziurtagiriarekin edo goragoko beste batekin bermatuko da.

Ziurtagiririk izan ezean, BBUPek egokitzen jotzen dituen kontrolak onartuko ditu lizitatzailerak, eta haien kostua bere gain hartuko du.

Betebehar horiek kontratu-izaera izango dute.



6.8 BERMEA

Kontratistak esku hartutako elementuak bermatuko ditu. Egindako lanak bermea izango dute egin osteko bi hiletan; hori horrela, elementu beraren eta matxura- edo akats-kondizio berarekin bideratutako lan-agindua ordaindu beharrik ez da egongo, esku hartzeko agindua emanagatik. Bermeak ez du ondoriorik, baldin eta matxura gertatzen bada ustekabean, istripuz, beste batzuen okerreko erabileragatik edo BBUPen iritziz arrazoiz gertatutako bestelako kausengatik.

Kontratistaren kontura eta ardurapean joango dira kontratuaren indarraldian sortutako jarduketa zuzentzaileak, prebentziozko eta zuzenketazko berrikuspenen ostean gertatutakoak eta BBUPek detektatzen dituenak, baldin eta arrazoi hauen ondoriozkoak badira:

- Mantentze-lana ez egitea edo eskas egitea
- Ordezko piezak eta aktiboen elementuak gaizki muntatzea
- Makinak eta makinen ordezko piezak behar ez bezala manipulatzeko
- Termikoak, mugagailuak, nibela, seinaleak eta abarrak oker erregulatzea
- Disolbagarri, koipe, material suntsikor, oro har, eta olio desegokiak erabiltzea
- Lanak tresna desegokiekin egitea
- Aktibo bateko matxura nagusiagatik eta arestian azaldutakoen ondorioz aktibo batean sortutako matxurak

6.9 ZIURTAGIRIAK

Hilero, entregatutako ZERRENDA BALORATUAN oinarritutako ziurtagiria egingo du kontratistak, egindako lanei dagokienez.

Ziurtagiri partzialak behin-behinekoak baino ez dira izango, eta ez dakarte haien barruan jasotako lanak onartzea.

Partzialki amaitu diren lanen edo gaizki egindakoen ondorioz, murrizketa proportzionala aplikatu ahal izango da hasierako prezioaren gainean.

Alderdiek eztabaidatu eta onartu beharko dituzte prezio kontraerriak, gauzatu aurretik.

Kontratu-zuzendaritzak alde aurretik onartu ez dituen lan gehigarriak edo aurreikusitakoetan egindako aldaketak ez dira ordainduko.

7. KONTRATISTAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

Aurkeztu beharreko «Dokumentazio teknikoa» administrazio-klausulen agiriko dagokion atalean zehaztutakoa da.

Bilbo, 2025eko uztailaren 3a

Xabier Bikandi Markaida
Horniduraren Mantenimendu Ataleko Arduraduna